



**ORIOKUDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2012ko maiatzaren 31, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:05    **BUKATZEKO ORDUA:** 21:15

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) eta Ekiñe Saizar Larrañaga zinegotziak (Bildu) adierazi dute ezin zutela etorri, eta beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta proposatzen du beste gai bat sartzea, udalbatzarraren gai-zerrendaz kanpo: adierazpen instituzional bat onartzea, egoki bada, atzoko egunez hil zen Karmele Esnal Zulaika oriotarra gogora ekartzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** udalbatzarraren gai-zerrendan beste gai hau sartzea, gai zerrendaz kanpo: adierazpen instituzional bat onartzea, egoki bada, atzoko egunez hil zen Karmele Esnal Zulaika oriotarra gogora ekartzeko.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta eskatzen du, aurrerantzean, udalbatzarraren deialdia egiterakoan, gai-zerrendaz gain, dagokion dokumentazioa ere eranstea, Excell edo PDF formatuan.

## Gai-zerrenda

- 1.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedienteak kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 3/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedienteak kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko kultur etxeko atezain lanpostuaren lanaldia aldatzea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, ORIOKO ARRAUNKETA ELKARTEA kirol taldeari diru-laguntza ematea, hitzarmen arautzaile baten bitartez.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzari.
- 6.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioa: altzari komertzialak eta aldagelak.
- 7.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioa: gimnastikarako makinak, ergometroak, errendimendu handirako teknologiak eta hipoxia sistema intermitentea.



- 8.- Izendatzea, egoki bada, Udalaren laugarren ordezkaria Udalerri Euskaldunen Mankomunitaterako (UEMA), karguari uko egin zion Jokin Izagirre Zabala zinegotzia ordezkatzeko.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEAREN arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, eta alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.
- 10.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoak aurkeztu duen Orioko Udalaren barne araudia betetzeari buruzko mozioa.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Egoitz Eizagirre Adurizek, ORIOKO HERRIRAREN izenean, aurkeztu duen euskal presoei buruzko mozioa.
- 12.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2/2012 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2012 espedientea kreditua aldatzeko modalitatean egina dago eta 37.520 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko maiatzaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 2/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 37.520 euroko kopurua du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza



**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere talde politikoak abstentzio botoa eman du 2/2012 kreditua aldatzeko espedientea onartzeko bozketa honetan; baina kontrako botoa emango du gai zerrendako hurrengo gaien. Horren arrazoiak honako hau da: 2/2012 espedientea ez da finantzatzen diruzaintzako soberakinaren kargura; baina bai, ordea, hurrengo gaien onartzeko dagoen 3/2012 espedientea, eta horregatik emango dio horri kontrako botoa.

## **2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 3/2012 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kreditua aldatzeko espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 933.100 euroko zenbatekoa du.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, honako arrazoiengatik:

- Espedientean sartu diren partida gehienak Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroko exekuzio-lanei eta hornidurei dagozkienak dira. Partida horietan 900.000 euro inguru gehituko dira, eta Diruzaintzako soberakinaren kargura finantzatuko da gehikuntza. Hori gehiegikeria da EAJrentzat eta are



gehiago kontuan hartuta bazegoela partida horiek aurreikustea hasieran onartutako exekuzio-proiektuan.

- Teknikazio-zentroko obren eta horniduren exekuzio-proiektuan aurreikusita zegoen Udalak zuzenean erostea beharrezko kirol ontziak.
- Kreditua aldatzeko 3/2012 espedientea onartzearen ondorioz, Diruzaintzako soberakina 8.000.000 euro ingurura murriztuko da.

Aipamenari erantzuteko, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Bilduk salatu zuela bere garaian Arraunketako eta Piraguismoko teknikazio-zentroaren 'diruzuloa'; baina orain aurrekontua doitzea beste erremediorik ez dagoela, garbi baitago eman diren obra-ziurtagiriak, behin lanak eginda daudenean, ordaindu egin behar direla.

Amaia Dorronsoro zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailearen buru denez, adierazten du teknikazio-zentroa makroproiektu bat dela, Bilduk herentzian jaso duena.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko maiatzaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 3/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean eginga dago eta 933.100 euroko kopurua du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO KULTUR ETXEKO ATEZAIN LANPOSTUAREN LANALDIA ALDATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ikusita lanpostuari izendatu zaizkion funtzio berriak, aldaketa hau egingo litzateke: lanaldia partziala izatetik (lanaldi osoaren %71,42; astean 25 ordu) osoa izatera pasatuko da (%100). Aldaketak atzerako eragina izango du eta 2012ko martxoaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du oraindik ez duela jaso gai honi buruz 2012ko maiatzaren 4ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean eskatu zuen txostena. Hori dela eta, adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko maiatzaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Orioko kultur etxeko atezain lanpostuaren lanaldia aldatzea: lanaldia partziala izatetik (lanaldi osoaren %71,42; astean 25 ordu) osoa izatera pasatuko da (%100). Aldaketak atzerako eragina izango du eta 2012ko martxoaren 1etik aurrera aplikatuko da.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO ARRAUNKETA ELKARTEA KIROL TALDEARI DIRU-LAGUNTZA EMATEA, HITZARMEN ARAUTZAILE BATEN BITARTEZ.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Diru-laguntza 167.000 eurokoa izango da eta hitzarmen arautzaile baten bidez arautuko da (nola tramitatu, nola gastuak zuritu...), Diru-laguntzen azaroaren 17ko 8/2003 Lege Orokorraren xedapenek eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako lege hori garatzeko Araudiak, besteak beste, agintzen duten bezala.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoaren ustez ez dela egokia Orioko Arraunketa Elkartek kirol ontziak erostea 167.000 euroko diru-laguntza hori baliatuta eta, horren orde, egokiagoa dela, aurreko agintaldian lehen onarpena jaso zuen proiektuan aurreikusita zegoen bezala, Udalak zuzenean erostea kirol ontzi horiek, Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren ekipamendua hornitzeko kontratuaren barruan. Horrez gain, eskatzen du Orioko Arraunketa Elkartek erosiko dituen kirol ontzien zerrenda ematea bere talde politikoari. Hori guztia dela eta, Jon Redondok adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2012ko maiatzaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- EMATEA** Orioko Arraunketa Elkarteari 167.000 euroko diru-laguntza, hitzarmen arautzaile espezifikoko baten bidez, hainbat kirol ontzi erosteko.

**2.- ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Orioko Arraunketa Elkarteari artean sinatu beharreko hitzarmen arautzaile horren testua eta **AHALMENA EMATEA** alkateari hitzarmena sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

## **5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ordenantzaren xedea arauak ezartzea da, Orion dauden animaliak babesteko, edukitzeko eta saltzeko, erreparatu gabe gabe animalia horiek Orion zentsatuta edo erregistratuta dauden edota beren jabeak non bizi diren. Arautzeak honako helburua dauka: harmonizatzea animalia horien eta pertsonen arteko elkarbizitza eta izan litezkeen arriskuak (osasunari, ingurumenari, lasaitasunari eta pertsonen eta ondasunen segurtasunari dagozkionak).



Horretarako, animaliek jaso behar duten gutxieneko arreta ezartzen du ordenantzak: tratua, higiena, zaintza, babesa, garraioa... Era berean, arauak ezartzen ditu animalientzako zaindegiei buruz edota beren osasun-arretari buruz eta baita animalien komertzializazio eta salmentari buruz ere.

Ordenantzak erregulatu egiten ditu, baita ere, arriskutsuak izan litezkeen animaliak edukitzeko baldintzak: lizentziak, baldintza orokorrak, erregistroak...

Bestalde, ordenantza honetatik kanpo geratzen dira:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Fauna basatiaren babesa eta zaintza natura-ingurunean.
- d) Zezenketak.
- e) Abelzaintza, eskuduntza duten beste herri administrazioek kontrolatzen dutena.
- f) Animalien erabilera esperimentaziorako eta bestelako xede zientifikoetarako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2012ko apirilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzari.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** udal ordenantza hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita. Udal ordenantza hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea igarota ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.





**6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO  
TEKNIFIKAZIO-ZENTROAREN HORNIDURAREN LEHIAKETA BIDEZKO  
KONTRATAZIOA: ALTZARI KOMERTZIALAK ETA ALDAGELAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- NEO 2009, SL
- 2.- MANPEL, SA
- 3.- EL CORTE INGLES, SA
- 4.- ALUMINIOS AZPEITIA, SL
- 5.- B.G. MOBILIARIO CLINICO, SL
- 6.- BLAZQUEZ SISTEMAS, SL
- 7.- DISEÑO INTERIORISMO INFORMATICA OFICINAS, SA
- 8.- CARAVIL 2000, SL
- 9.- MIKEL VAZQUEZ MADINA (JOYN MOBILIARIO)
- 10.- BIGARA EQUIPAMIENTOS, SL
- 11.- HOBBY KIROLAK, SL
- 12.- IGNACIO ECHARRI, SL
- 13.- KEFREN, SL
- 14.- B.Z.Z. MOBILIARIO, SL
- 15.- SAUNAS INBECA, SL
- 16.- MOBILIAR, SL
- 17.- MONTTE, SL
- 18.- IRUMAK, SA
- 19.- GERODAN, Sociedad Coop.



Kontratazio mahaiak, espedientean dauden txosten teknikoak kontuan hartuta, honako hau proposatzen du: **1. lotea** (altzari komertzialen ekipamendua) **MIKEL VAZQUEZ MADINARI (JOYN MOBILIARIO)** adjudikatzea eta **2. lotea** (aldagelen ekipamendua) **ALUMINIOS AZPEITIA SL** entitate merkantilari adjudikatzea, bi horiek direlako puntuaziorik altuena lortu duten proposamenak, baldintza administratibo partikularren orrian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2012ko maiatzaren 18an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 1. lotea (altzari komertzialen ekipamendua) **MIKEL VAZQUEZ MADINARI (JOYN MOBILIARIO)**. Adjudikazioaren prezioa 35.978,88.- eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (1.524,53 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**3.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 2. lotea (aldagelen ekipamendua) **ALUMINIOS AZPEITIA SL** entitate merkantilak egindako B proposamenari. Adjudikazioaren prezioa 41.220,96.- eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (1.746,65 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**4.- JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkion lege errekurtsioak azalduz.

**7.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTROAREN HORNIDURAREN LEHIAKETA BIDEZKO KONTRATAZIOA: GIMNASTIKARAKO MAKINAK, ERGOMETROAK,**



## **ERRENDIMENDU HANDIRAKO TEKNOLOGIAK ETA HIPOXIA SISTEMA INTERMITENTEA.**

Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioa: gimnastikarako makinak, ergometroak, errendimendu handirako teknologia eta hipoxia sistema intermitentea.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

### **1. LOTEA. GIMNASTIKARAKO MAKINAK**

- 1.- KIROL NAGUSIA SL
- 2.- SPORT STUDIO SERVICIOS DEPORTIVOS SL
- 3.- TECHNOGYM TRADING, SA
- 4.- BRUNSWICK IBERIA SA
- 5.- ARGYSAN SL
- 6.- EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS SL

### **2. LOTEA. ERGOMETROEN EKIPAMENDUA**

- 1.- VERMONT SL
- 2.- NAUTICALIA SL

### **3. LOTEA. ERRENDIMENDU HANDIRAKO TEKNOLOGIEN EKIPAMENDUA**

- 1.- RANKING, SL

### **4. LOTEA. HIPOXIA INTERMITENTENKO SISTEMA**

Ez da lizitatzailerik aurkeztu 4. loterako (hipoxia intermitenteko sistema).

Kontratazio mahaiak, espedientean dauden txosten teknikoak kontuan hartuta honako adjudikazioak proposatzen ditu, proposamen horiek direlako puntuaziorik altuena lortu dutenak, baldintza administratibo partikularren orrian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera:

### **1. LOTEA. GIMNASTIKARAKO MAKINAK**



ARGYSAN SLk egindako proposamena, 181.366 eurokoa (BEZ barne)

## 2. LOTEA. ERGOMETROEN EKIPAMENDUA

VERMONT SLk egindako proposamena, 64.888,20 eurokoa (BEZ barne)

## 3. LOTEA. ERRENDIMENDU HANDIRAKO TEKNOLOGIEN EKIPAMENDUA

RANKING SLk egindako proposamena, 63.130 eurokoa (BEZ barne)

## 4. LOTEA HIPOXIA INTERMITENTEKO SISTEMA

Ez denez lizitatzailerik aurkeztu 4. loterako, lote hori adjudikatu gabe uztea proposatzen du kontratazio mahaiak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2012ko maiatzaren 18an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 1. lotea (gimnastikarako makinak) **ARGYSAN SL** entitate merkantilari. Adjudikazioaren prezioa 181.366 eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (7.685 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**3.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 2. lotea (ergometroen ekipamendua) **VERMONT SL** entitate merkantilari. Adjudikazioaren prezioa 64.888,20 eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (2.749,50 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**4.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 3. lotea (errendimendu handirako teknologien ekipamendua) **RANKING SL** entitate merkantilari.



Adjudikazioaren prezioa 63.130 eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

**5.- ADJUDIKATU GABE UZTEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren horniduraren lehiaketa bidezko kontratazioari dagokion 4. lotea (hipoxia intermitenteko sistema).

**6.- JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkion lege errekurtsoak azalduz.

**8.- IZENDATZEA, EGOKI BADA, UDALAREN LAUGARREN ORDEZKARIA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATERAKO (UEMA), KARGUARI UKO EGIN ZION JOKIN IZAGIRRE ZABALA ZINEGOTZIA ORDEZKATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jokin Izagirre zinegotziak utzitako kargua Jose Angel Iparragirre Alberdi zinegotziak (Orain) hartzea da proposamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI** zinegotzia (Orain) **IZENDATZEA** Udalaren laugarren ordezkari Udalerrri Euskaldunen Mankomunitaterako (UEMA), karguari uko egin zion Jokin Izagirre Zabala zinegotzia ordezkatzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela ez dutelako jakin azken momentura arte proposatzen zen ordezkaria Jose Angel Iparragirre zela eta uste dutelako hori deialdiarekin batera jakinarazi behar zitzaiela.

**9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA HITZARMEN HORI SINATZEKO ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lankidetzaren hitzarmenaren helburua da elkartearen proiektu eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntza zuzena jasotzeko baldintzak arautzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Udalaren eta KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEAREN arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, elkartearen proiektu eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntza zuzena jasotzeko baldintzak arautzeko. Diru-laguntzaren kopurua, hasieran, urteko 15.750 eurokoa izango da eta erantsitako hitzarmenaren testuaren arabera arautuko da.

**2.- AHALMENA EMATEA** alkateari lankidetzaren hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

## **10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTU DUEN ORIOKO UDALAREN BARNE ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO MOZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

*2011ko azaroko Ohiko Udalbatzaren Bilkuran, Orioko Udaleko Barne Araudia onartu zen Bildu eta Orain talde politikoaren aldeko botoekin.*

*Orioko EAJ udal taldeak ez zuen prozedurarekin eta edukiarekin bat egiten eta horrexegatik ez zion aldeko botoirik eman Araudi honi.*

*Hala ere, Udalbatzara aurkeztu zen testuak kideen gehiengoaren babesa zuenez, gaia onartua izan zen.*

*Hilabeteak dira beraz, araudia indarrean dagoela eta beraz udal egunerokotasunean finkatua egoteko denbora nahiko izan du.*

*Barne Araudi honek Informazio Eskubidea deritzon atalean zera esaten du: "Talde politiko guztiei hileroko emango zaie egindako ordainketen eta alkate-dekretuen berri". Puntu hau zehazki ez da betetzen ari gaur egun.*

*Hau guztia horrela izanik, udalbatza honek zera onartzen du:*

*- Orioko Udalak indarrean duen Barne Araudia betetzea.*



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** EAJ talde politikoak aurkeztu duen Oriko Udalaren barne araudia betetzeari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EGOITZ EIZAGIRRE ADURIZEK, ORIKO HERRIRAREN IZENEAN, AURKEZTU DUEN EUSKAL PRESOEI BURUZKO MOZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

*Urtarrilaren 7an milaka herritarren babesa eta parte-hartzea izan zuen Bilbon egin zen herri-mobilizazio orokorrak. Euskal gizartearen gehiengo zabal baten eskaerak Bilboko kaleak hartu zituzten, euskal preso politikoen eskubideen aldeko manifestazio historikoan. Ordutik hona, alderdi politiko askok presoen auziarekiko jarrera berriak hartu dituzte. Hori guztia kontuan hartuz, begi bistakoa da egungo kartzela-politikak ez duela sostengu politiko eta sozialik.*

*Alabaina, gobernuek ez dute pausorik eman eta kartzela politika ez da aldatu. Presoen gaia eguneroko mintzagai bada ere, Espainiako eta Frantziako gobernuek iraganeko jokabideari eusten diote garai berri honetan.*

*Euskal gizartearen gehiengoaren esperantza, ordea, egiazko eta bidezko soluzioetara dago bideratuta. Gatazka betiko konpondu eta haren ondorio guztiei irtenbidea emateko, ezinbestekoa da preso eta iheslarien egoera ere konpontzea.*

*Horrela bada, garrantzitsua da herritarrok batuta ekitea, espetxeetako giltzak dituztenak jarrera aldatzera bultzatzeko.*

*Presoen giza eskubideak errespetatzea eskatzen dugu:*

- 1.- Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea.*
- 2.- Espainiar estatuan ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea. "De facto" aplikatzen den bizi osorako espetxe zigorra bertan behera uztea.*
- 3.- Frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunari bide emanez.*
- 4.- Zigorren 2/3 eta 3/4 bete dituzten presoak kaleratzea.*



5.- *Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoak egoki zaintzeko beharrezko neurriak hartzea. Presoen osasun eskubidea bermatzea.*

6.- *Frantziar eta Espainiar estatuek darabilten espetxe-politika egokitzea, hasi den aro berrian gatazka konpontzeko bidean modu positiboan eragiteko.*

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Egoitz Eizagirre Adurizek, ORIOKO HERRIRAREN izenean, aurkeztu duen euskal presoeri buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## 12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak oraindik ez dituela jaso eskatu zituen txostenak eta, hortaz, eskatzen dio alkateari beharrezko neurriak hartzea txosten horiek lehenbailehen banatzeko.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du idatzi berri duela alkateak eta Orain talde politikoak eskatutako txosten juridiko bat, Zaragueta ikastetxean DBHko ikasketak eman ahal izateko instalazioak handitzeko obrei buruzkoa. Txosten horretan dioenez, indarrean dauden legeen arabera, honako kasuetan da beharrezkoa idazkari-kontu-hartzailearen txosten juridikoa:

- a) Alkate-presidenteak horrela egitea eskatzen duenean edota udalbatzarkideen herenak (Orioko kasuan, bost zinegotzik) hala eskatzen duenean; txostena, betiere, erabakia hartu behar den bilkura baino lehenago eskatu behar da, behar adina denborarekin.
- b) Gehiengo berezi edo kualifikatua eskatzen duten gaiei buruzko erabakiak direnean.

Idazkari-kontu-hartzaileak adierazten du, baita ere, izaera nazionalako (gaur egun, estataleko) gaitasuna duten toki-administrazioko funtzionarioen erregimen juridikoa arautzen duen irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3. artikulua arautzen duela, bereziki, udal idazkaritzari izendatutako aginduzko lege-aholkularitzak zein funtzio bete behar dituen.





Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Gai-zerrendaz kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziazkotzat jo ondoren:

### **13.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, KARMELE ESNAL ZULAIKAREN HERIOTZA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

#### ***Goian bego, Karmele Esnal***

*Karmele Esnal zendu zen atzo, ohorezko euskaltzaina eta euskal zale langilea. Ofizioz irakaslea, bere garaian maistra, Ikastolen munduan sortzaile eta bultzatzaile izan zen.*

*1932ko abenduaren 20an Orion jaio eta bizitza osoa Donostian bizi izan da. izugarria da euskararen normalizazioan Karmele Esnalek egindako ahalegina. Hara zenbat ekimenen bultzatzaile izan zen Esnal: 1955ean sortu zuen ikastola Donostiako Pedro Egaña kalean, hasiera hartan zazpi haur ikasle zituela. 1960ko hamarkadan, Jarrai antzerki taldean aritu zen, Iñaki Beobide zuzendari zela. Besteren artean, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria eta Arantxa Gurmendi ondoan izan zituen. 1965ean Barrian (Araba) antolatu ziren lehenengo euskarazko udalekuetan parte hartu zuen. 1991n Bagera Donostiako euskaltzaleen elkartearen sortzeko bileran parte hartu zuen. Bagera elkartearen barruan, Mintzalagun izeneko programan aritu zen lanean, euskara ikasten ari zirenei laguntzen.*

*Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1967ko abuztuaren 15ean. Ohorezko euskaltzaina, berriz, 1998ko apirilaren 24an. Artikulu asko argitaratu zuen Zeruko Argia aldizkarian, "Gazte naiz" atalean; "Maribeltz" ezizenez sinatzen zituen bere lanak.*

*1999an, Antton Abbadia Saria eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 2003ko maiatzaren 9an, Eusko Jaurlaritzak frankismo garaiko ikastoletako irakasleentzako laguntzen dekretua aurkeztu zuen eta omenaldia egin zioten. 2007ko urtarrilaren 28an, Sabino Arana Fundazioak saritu zuen ere, beste andereño batzuekin batera.*

*Hilberritan Orioko herriak ere gogoan izan dezala Karmele Esnal Zulaika.*



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Bildu talde politikoak Karmele Esnal Zulaikaren heriotza dela eta aurkeztutako adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**